

PEPA-ESPERANTZA

IPUIÑA

Pepak sartu dalako eun da bat urtean,
 Negua irago dau gorderik echean;
 Uda barria zelan eldu jakun emen,
 Amabost egunokaz kanpora dau urten;
 Kalean dabillala nik dakust agaitik,
 Bere llobea lagun dabela albotik;
 Besotik obatuta onek elešara,
 Legez bardiñ daroa jayetan plazara;
 Gure eche aurretik pasetean atzo,
 Pepak llobachoari onelan dirautso:
 «Jaunak gura daiala Jošepa Antoni,
 Zu atsotu artean bizi nadilla ni,
 Zeuk orain niri legez lagundu daizudan,
 Eunda bat urtekoa zarean denporan.
 Sarituko aldeutsuz zeure amandriak,¹
 Zugandik artutako mesede andiaik,
 Bai, ene llobachoa entzun dot Parisen,
 Dakiela atsoa umera biurtzen,
 Araše gura neuke udan joan aurten,
 Zen baño gazteago ipiñi nagien.»
 Barre karkašada bat egiñik llobeak,
 Entzun eban naibagez ori amandreak,
 Eta nik esan neban neuronen barruan:
 «Esperantzak engañau oi gaitu munduan,
 Zelan poztzen garean danok esperantzan,
 Negar egin bear ta asko gabiltz dantzan.»

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion 1893.^{ko} Martian.

(1) Amandria=Amona.